


Pederastez eta bestelako piztiez



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Leaving *Neverland* dokumentala. Biktima bi. Lau orduz euren ahotik pederastiaren mekanismo konplexuak ulertzeko parada. Kraskatutako gizon heldu bi. Berba bakoitzean orduko umeak azalarazten dira. Pederastiaren itzal luzea.

Pederastak piztiak dira, bai, baina ez dira munstroak. Kalkulatzailak dira. Badakite zein diren ume babesgabeenak, badakite zelan egin neska-mutikoen eta familien konfiantza apurka irabazteko eta, zeregin horretan, denbora luzea emateko prest daude. Indarkeriaz baino, botere erabilpen “samurragoek” emaitza hobeak izaten dituztela jakitun dira. Horrexegatik izaten dira pertsona atseginak, azken batez, lotura emozionala bitarteko nagusia baitaukate.

Lehengo egunean, epaitua izaten ari den pederasta batek adikzioaren aitzakiapean desenkusatu nahi zuen bere burua. *Serial killerrek* azaltzen duten hilketarako adikzioa ekarri zidan gogora. Psikopata guztiak telesailetakoen antzekoak direla uste ohi da. Baina jende gehienak ezaugarri psikopatikoak badauzka. Psikopatia ez delako buru gaitotasuna, enpatia falta absolutua baino.

Eta enpatia falta hori ikus liteke hainbat pederastek emandako arrazoietan:

nik adikzio bat daukat, nik ezin dut kontrolatu, hortaz, neu naiz biktima. Benetako biktimak ez dira niretzat pertsonak, neure asebetetzarako erabili ditudan gauzak baino, kokaina edo jokia erabiltzen duenaren antzera. Ni, ni, ni...

Bestetik, eraso sexualen helburua ez da sexua bere horretan. Sexua bitartekoa da, autosatisfakzio maltzurrago bat lortzearen: beste baten menderakuntza. Gozamen sexuala ez da azken batez bilatzen dena, baizik eta beste pertsona bat menperatzeak ematen duen gozamena, serieko hiltzaileek beste pertsona baten bizitza beren esku artean edukita gozaten duten bezala.

Eta helburua hori bada, egiteko arrazoia, egin ahal dutela baino ez. Pederastek ahalmen hori daukaten bitartean, boterea erabiltzeari ekingo diote: biktima anitz eta askotarikoak izan daitezke, eskoletan gertatzen den bezala –mutilen kasuetan, gehienbat–, edo biktima bakarra behin eta berriro erasotua, etxe ingurugiroan izaten den legez –nesketan kasu ohikoena–.

Ahalmen horrek mugapenik ez daukanean eta, areago, babestua izaten denean, izurrite bihurtzen da, eliza katolikoan gertatu den bezala. Apezpikuak

bildu berri ditu Bergogliok pederastiari aurre egiteko. Azeriak, oilo zain.

Eta, inoren sinesmenak alde batera utzita, denok sinetsi behar baitugu zer-baitetan bizitzari zentzua ematearren, erregu bat egin behar dut: mota guztietako abusuetan oinarrituta hazi den estamentuaren esku umeak utzi baino lehen, gogoratu, mesedez, aita santuaren gainetik, zeuek zaretela aitak eta, ama birjinaz gaindi, zeuek zaretela amak.

Save the Children-en arabera, munduko txoko honetan baliteke populazioaren %20k abusuak pairatu izana. Ez da harritzekoa, kasuen %85 ez ei delako salatzen. Emakumeon kontrako erasoak osasun publikoko afera diren bezala, pederastia ere osasun publikoko kontua da. Eta are larriagoa, umeek aurre egiteko bitartekorik oraindik ez baitaukate. Osasun arazoa da, ez erasotzaileak gaixorik daudelako, baizik eta jendarte gaixotua sorrarazten dutelako belaunaldiz belaunaldi.

Ez dira iraganeko gertaerak. Momentu honetan Euskal Herrian hainbat ume abusatuak izaten ari dira. Eta ez du axola noiz irakurtzen duzun hau. Hainbat pertsona barrutik kraskatzen ari dira, zeintzuk eta ume horiek babestu beharko lituzketen berberak. ●